



TORTURAREN  
ZUTOIN  
BELTZA

fito rodriguez  
eva forest  
alfonso sastre



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

FITO RODRIGUEZ

EVA FOREST

ALFONSO SASTRE

# torturaren zutoin beltza

Azalean:

Asier Hernandez

Klara Badiola

Olatz Beobide

## Aurkibidea

Torturaren zutoin beltza

Hitzaurrea Egunerokoa eta gutunak kartzelatik

Zutoin beltza

Joseba Arregiri: Elegia eta etorkizuna

# Torturaren zutoin beltza

Fito Rodriguez

2021eko otsailaren 13an Joxe Arregi jasandako torturengatik hil zela berrogei urte bete dira.

Norberak bere buruaren kontra deklaratzeko besterik bilatzen ez duen aitortzak ez omen du balio judizialik baina, halere, hori baino ez du bilatu hemen poliziak euskaldunon kasuotan bederen.

Hori dela eta Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologia Euskal Institutukoak “1960tik 2014ra bitartean Euskadin izandako torturaren ikerketa proiektua” zuzendu zuen baita Nafarroako Foru Erkidegoan antzerako ikerketa burutu zuen ere ia 5000 torturatu kasuren berri dokumentatuz. Henrik hona lege ekimen hauek abian jarri dira E.A.En: Alde batetik 107/2012 DEKRETUA, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei kalte-ordainak emateko. Eta bestetik, 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, EAEn 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko. Dena den, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak hamaika aldiz kondenatu du Espainiako estatua, salatutako tortura-kasuak ez ikertzeagatik.

Torturak frogatzea zaila izaten da oso. Tortura frogatzea zailtzen duten polizia-arauak aldatzea, ordea, erraza izango zen baina, esan daiteke, polizia torturazailerak babestea eta, behar denean, saritzea errazago egiten duela Gobernuak, demagun, atxilotze-inkomunikazioa ahalbidetzen duen protokoloa bertan behera uztea baino.

Nire kasuan, hamar eguneko inkomunikazioa igaro ostean kartzelan sartu ninduten eta, pasatutakoa pasatuta, ezin esan kartzela gogor egin zitzaidanik. Giltzapeak giltzape, espetxea komisalgora baino askoz eramangarriagoa izan zen. Hala ere, zenbait egunen buruan, botaka hasi nintzen gauerdian iratzartzen nintzelarik. Ez nengoen eri, baina bai gaizki. Ez nekien zer pentsatu, ez eta zer edota zeini zer esan ere, gau bat bestearen atzean gonbitoka esnatzeak eraman ninduen inguruan nituen lagunei ene kasuaz galdetzeraz, ustean, hori ergelkeria!, nirea gauza arraroa izango zela eta, aldiz, hura harridura hura... lagun gehienei espetxerakoan antzerakoa gertatu zitzaizela adierazi zidaten.

“Komisaldegikoak ari haiz botatzen”, diagnostikatu zuten eskarmentu kolektiboak eman ohi duen herri jakinduriaz, “torturen garbiketak dituk, eta hobe kanporatzea barruan eramatea baino...” arrapostuz. Esaterik dagoenak mugak ditu eta egoera bakoitzean botereak esan daitekeenaren ertzak markatu ohi dituzenez, ikasi nuen hori niretzat bakarrik gorde nahi ez dudanez, banoa neronek ere torturari buruz zerbait botatzera, argi esatera, gizarte gorputzaren gaixotasun horren ondorioak arintzen lagunduko dudalakoan.

Hona hemen adierazteko dudana.

Gizarte modernoaren oinarria izan zen Ilustrazio garaian justizia, mendekua izatearen partez, ikerketa bihurtu zen. Horrela, frogak hartu zuen aurretik aitortzak zuen garrantzia. Erdi Aroko Inkisizioak aitortpenak eskuratzeko erabilitako torturen ordeztuz, ustez egindako kalteen araberrako arrastoei kasu eginez erdiesten ziren frogak ematen zuten kulpantearen berri.

Ez zen, beraz, inork bere buruaren aurka deklaraziorik egin zezan onartzen erruduntasuna frogetatik zetorrelako ezaguera berria aldarrikatzen zuen gizarte demokratikoan. Argien mendean, jakina, argibideak izan ziren azterketen ezaugarri nagusia, baita polizia zereginetan ere...

Aipatu gizarte aldaketan justizia botere eragiletik nahiz legegiletik bereizi zen eta polizia bera, funtsean, bere menpean hartu zuen. Gobernu demokratikoak ardatz hauetatik garatzen hasi ziren.

Hau da, argi esanda, torturaren erabileraren bazterketa ez dator, berez, kondena moral edo etikoa batetik, gizarte eraldaketa oso batek eraginda izan dela baizik.

Torturaren partez, beraz, frogak lortu beharra zegoen, baina, tortura, berriz, nekez frogak daitezkeenez... demokrazian ote gauden zalantzazkoa izango da beti benetan torturarik ez dagoela frogatzerik ez dagoen bitartean.

Komunikagaitza denaz aritzeko balio du, besteak beste, literatura. Adibidez, kontraesan honetara gerturatu zen Ariel Dorfman idazlea bere «Herioa eta Dontzeila» antzezlanaren bidez. Hartan, protagonistak ez daki seguru bere torturazaitalearen aurrean ote dagoen, atxiloturik egon zen denboraldia begiak itxita pasa zuelako baina, halere, arrastoak baditu, eduki, eta hori saiaturiko da argitzen...

Tortura kasu horren deskribapenean, ordea, gainerakoetan bezala bestalde, ez da torturatzailearen errua soilik azalduko, torturak berak ezkutatu egiten dituen funtsezko gizarte ezaugarriak agerian utziko dituela baizik (jarrera sexistak, memoria kolektiboarekiko mespretxua, inpunitatea...) benetan dagoen egoera politikoa nabarmenduz (konplizitatea, ustelkeriak...).

Zergatik ez dute onartzen, bada, torturaren aipamena oraingo eta hemengo hedabideetan? Tortura ematen den tokian gizarte demokratikorik ez dagoela begi bistan uzten duelako, noski.

Eta ez hori bakarrik, itaunketa polizialetan torturarik badagoen frogatzea zaila izan arren (Barne ministro guztiek ongi dakitenez...) torturaren erabilera sistematikoak benetan polizia ikerketarik ez dagoela frogatzen duelako.

Norberak bere buruaren kontra deklaratzeko besterik bilatzen ez duen aitortzak ez baitu balio judizialik baina, era berean, hori baino ez du egiten hemen poliziak euskaldunon kasuetan bederen.

Eta frogarik ezean, gizartea ez dela demokratikoa frogatuta geratzen denez, hobe barruan uztea kanporatzea baino...

Larri daude. Gaixo gauzkate.

Eva Forest idazle eta editorea, torturaren aurkako borrokalaria eta eskubide zibilen defentsan aritutako lagun konprometitua eta solidarioa izan zen, bizirik dagoen Alfonso Sastre bere bikotea bezain beste bederen, eta torturaren aurkako borrokan haien oinordekotza ez dugu ahaztu nahi.

Ildo horretatik, torturaren salaketarekin batera, haien omenezko ekitaldiak antolatu dira Euskal Herrian eta liburu honek, beraz, haien lekukotasuna eman nahi du. Horretarako Alfonso Sastrek 1986an idatzitako eta Eva Forestek 1993an argitaratutako "La columna infame" izeneko antzezpenaren euskal ordaina (Zutoin Beltza izeneko) estreinako zularatu eta argitaratu dugu elebitan. Halaber, Sastrek Joseba Arregiren omenez idatzi zuen poema ere argitaratu nahi izan dugu hemen.

Esan bezala, "Zutoin Beltza" Alfonso Sastrek 1986an idatzitako antzerki pieza didaktiko txiki bat da, inoiz ez aurkeztua publikoaren aurrean. Izenburuak Milango zutabea gogoratzen du non herritarrak torturatuak izan ziren beste herritar batzuk egindako salaketengatik eta sortutako zurrumurru istorio faltsuak kausa. Hau dena 1630eko izurri beldurgarrian suertatu zen (orain bezalako sindemia garaian).

Egia esan, orduko salatarien ohorea baino gehiago torturatzailen salaketa erakusten zuen aipatu zutoinak.

Pandemia, edo sindemia, sasoi honetarako testu honek gogoratzen digu giza eskubideek herritarren segurtasunarekin talka egiten dutela eta torturaren aurka azaltzeak giza duintasunaren aldeko ezinbesteko jarrera behar duela izan.

Testu horren aurrean, sarrera gisa, Eva Forestek 1975an argitaratutako *Journal et lettres de prison* (Éditions des femmes) liburuaren hitzaurrea dakarkigu hona. Hartan, bere soiltasunean, errepresioak ukitzen duen alde barnekoia eta haren aurkako elkartasunaren premiaz modu hunkigarriaz azaltzeko lekukotasuna ezin hobeagorik eskaintzen digu.



# Hitzaurrea Egunerokoa eta gutunak kartzelatik

Eva Forest

Duela egun gutxi liburu hau argitaratzeaz hitz egin zidatenean, lehen bultzadak hori ukatzera eraman ninduen. Ez bakarrik barruan daraman eta oraindik idatzi nahi dudan borroka-liburua ez izateagatik, baizik eta izkribu hau oso barnekoa delako, ez beste inork irakurtzeko pentsatua eta, horrezaz gain, oso egoera kritikoetan sortu nuen hau dena. Haietaz gogoratzen naiz nik egoera gainditu ahal izateko egin nuela eta, bide batez, behar bezala jarraitzeko egin behar nuen ahalegin ikaragarriaz. Guztiaren gainera aurrera segitu ahal izatea egun batez kontatu ahal izateko, une izugarri haien lekukotza uzteko. Haien distira oraindikitsuak dira, eta lotsatuta naukate. Hilabeteetan, gutun hauek salbatze-taula bat izan dira inguratzen gaituzten eldarnioaren erdian, eta egoera zehatz eta atsegin bati heltzeko modu bat izatera behartzen naute: ezin hutsik egin hitzordura, beraz, betebeharrak gozoa izan da horretaz idaztea, egunik uzkurrenetan zutik mantendu nauen konpromisoa. Beraz argitaletxe bati emateko baimena ematen dut. Horregatik errefusatzen dut lehen kontrako jarrera.

Izan ere, gero hobeto pentsatu nuen, era zehatzagoaz eta egoera kontuan hartuta... Egoera berri bat da hau, errepikatuegia izan arren, aspalditik elkartasunaz arduratzen garenontzat...eta ezin nion ihes egin dokumentu baten, testigantza baten, alerta-oihua indartu eta hobeto ulertzen lagunduko duen gutun soil baten babesak zerbait egiteko duen garrantziari. Eta, ikuspuntu horretatik, erresistentziak menderatu nituen. Liburua argitaratzera doazenek uste badute beharrezko tresna bat dela, eta lagungarri gerta dakiokela borroka horretan, proposamena atseginez onartzen dut. Hor dute: ahalik eta hoberen emango dutelakoan. Ez dut alde aurreko irakurketarik edo berrikuspenik behar.

# Zutoin beltza

Alfonso Sastre

Koadroen taula

1. TORTURA MILANGO ERARA
2. ESPAINIAKO TORTURA KLASIKOA
3. GIZARTE JOKOAK
4. BEHEAN SINATZEN DUTENAK
5. KOMISARIO BATI TIRO EGITEA
6. TORTURAREN DEFINIZIOA
7. ATE BATZUEN ATZETIK

## 1. TORTURA MILANGO ERARA

Agertokiko elementu bakarra zutoin bat da.- «zutoin beltza». Pertsonaia anonimo bat —emakumea edo gizona— publikoarentzat berdin da, eta honela dio:

KONTALARIA.— Kontatuko dizuegun istorioa Milanen hasiko da, non, batzuk etortzen diren bitartean besteak joaten diren, 1630ean gutxi gorabehera. Milanen jendeak oso gaizki pasatzen zuen.

Izurri bubonikoaren sasoia zen, kronika ospetsu batean aipatua.

Zein zen izurrite izugarriaren jatorria? Hildakoak pilatu egiten ziren, eta edozein etxe bizitzatan izurriteak gazte edo zaharrak seinalatzen zituen, eta hori gertu gertatzen zen; ez zen urrutiko gauza.

Herritarren lankidetzak, nire ustez, argitasun gutxirekin ebatzi zuen gaia. Leiho txiki batetik, bi herritar atsok gizon goibel baten esku gaiztoak eta ankerrak ikusi omen zituzten, bazilo ilunekin ukendu gaiztoez hormak igurtziz.

Modu gogor samarren bidez, preso bilakatuko zirenei beren jokabide gaiztoa aitortu arazi zieten. Herritar zitalak exekutatu zituzten eta zutoin bat egin zen, gizarte zibilaren txalo artean, beren zigilu likatsuekin atentatu egin zutenen belztasuna betiko oroitzeko. Aldiz, ez zen inoiz izan han ukendu edo zigilu likatsurik eta zutoin beltza, berau altxatu zutenen belzkeriaren eta tortura metodo beldurgarrien memoria bihurtu da.

Jarrai dezagun aurrera...

## 2. ESPAINIAKO TORTURA KLASIKOA

Kontalaria jarraitzen du eta bi gizon taularatzen dira, otsoaren eta hartzaren nahasketa diruditen bi gizon, alegia —animali maitagarri horientzat barkamena eskatuz— Rinkonete izeneko gazte bat burua estalita atxilo daramatela.

KONTALARIA.— Miguel Cervantesek «tormentu-tragoak» deitu zion lehen ezartzen zen uraren tormentuari.

“Rinkonete eta Kortadillo” izeneko nobela famatuan morroi batek istorio tristea kontatu zuen.

(Morroia ateratzen da)

Morroia.—«Aurreko egunetan hiru samin eman zizkieten lapur bati, eta denak bizi izan zituen ezer esan gabe, ezer gertatu ez balitz bezala».

KONTALARIA.—Horrela deitzen zioten «saminak» — horri, uretako tormentua horri, gutxienez, tortura antipatikoa dena. Historialari ospetsuak argi eta garbi kontatu izan du, munduaren eta jendearen kultura areagotzeko.

(Morroia akademiko apur batez mozorrotzen da, Francisco Rodríguez Marín jauna da (Cervantesi buruzko aditua), bizarrarekin eta betaurrekoekin, eta liburu batean, irakurriko balu bezala, kontatzen du.)

Morroia.—«Horri uraren tormentua edo ur berria deitzen zitzaion (ustezko otsoak eta hartzak deskribapenak dioena egiten dute). Gaixoaren aurpegian liho-zapi bat jartzen zuten, sudur zuloak estaltzen, sudurretik arnasarik har ez zezan, eta ahoan ura izurtzen zuten, zapia erabiliz zurrustaka, zapia ez tarri sakoneraino eraman nahian».

(Hala egiten dute, eta Rinkonetek hilzoriaren larritasuna du. Eztula eta oka egiten du.)

KONTALARIA.—Cristobal Chavesek dioenez «Sevillako kartzelan» idatzi famatuan, beste leku madarikatu bat, funtzionario bat zegoela, oso estimatua, eta haren espezialitatea —«oinazetuak osatu

eta sendatzea»— zen; izan ere, kalamitate hutsa baitzen bortxaren seinaleak agertzea, edo, are okerragoa , gizakia bera hilik geratzea, kolpez eta odolez beteta azaltzea.

(Arregiren hilotzaren argazki erraldoiaren proiektzioa.)

Lope de Vegak ere Espainiako ohitura zahar bezain ziztrin hori kontatu zuen, hantxe «Fuenteovejuna». Tortura-saiakuntza zegoen... Ez duzue eszena gogoratzen?

Nik gogoratzen dudanez, nahiko ona zen. Komendadorea hil ondoren, torturatu egingo dituzte.

Eta zer esan beharko dute? Zer dute kontatzeko?

(Gure aktoreek eszena hau irudikatuko lukete, pertsonaia bat eginez, aliatu egiten ziren jantziekin, ikusleen aurrean; bitartean, morroiak edo beste edozeinek pintada bat egiten du espraiarekin atzekoko paretan: TORTURARIK EZ.)

Esteban.— Saia gaitzen. Ikertzailea izango naiz, egin behar dugun horretan hobeto entseatzeko.

Izan bedi Mengo tormenturako jarrita dagoena.

(Mengoren lana egiten duenak sabela handi bat jarri du jantzita. Moxal bat edo tortura-tresna bat ere jarri dute.)

Mengo.—Ez al duzu beste bat, flakoagoa aurkitu?

Esteban.—Benetan zela pentsatu zenuen?

Mengo.—Di presto.

(Birak ematen dizkiote tornuari, hanka bat estutzeko edo luzatzeko.)

Esteban.—Nork hil zuen komendadorea?

Mengo.—Fuenteovejuna.

Esteban.—Zakur alena, martirizatzen bazaitut?

Mengo.—Hil arren, jauna.

Esteban.—Aitortu, aker halakoa!

Mengo.— Aitortzen dut.

(Pixka bat lasaitzen dute. Arregiren proiektzioa desagertu egiten da.)

Esteban.—Nor izan zen ba?

Mengo.—Fuenteovejuna.

Esteban.— Eman beste buelta bat!

Ez da bat bera ere!

Hara ikerketarekin!

(Guztiek barre egiten dute. Narratzaileak morroia parte hartzera gonbidatzen du bertso hauekin.)

KONTALARIA.—Bai, barre egitea negar ez egiteagatik; baina nondik dator tortura hitza? Hiztegira!

Morroia.—Ados. (Irakurri liburu batean)

Latinetik dator hitza, tortura da ere, eta «tortsio ekintza», bihurritzea alegia, esan nahi du. Tormentum soka bat zen, bihurritze jasanezinetarako erabiltzen zena. «Tortus» hitzak latinez, bira edo haria ere esan nahi du. Definizio ospetsuak! Espainiako Akademiaren hiztegiak nola edo hala islatzen du hitz horiek erabiltzen ziren gizarte-egoerak.

Hiztegi honetan «soka tratuaz» edo «txirrika» aipatzen da, eta honela dio: «txirrika batetik pasatzen zen soka presoak zintzilikatzen zen bere pisuarekin ito zedin. Buruko tratuan ura irents arazten zioten gaza mehe baten bidez ere».

KONTALARIA.— Utzi istorioak alde batera, gauza segurua baita hemen eta orain diktaduran bezala torturatzen dela.

(Herri-manifestazio baten grabazioa, kontsigna hau deklamatzeko:

DIKTADURAN BEZAIN BESTE

TORTURATZEN DA ORAIN ERE.)

### 3. GIZARTE JOKOAK

KONTALARIA.— Egia esanda, ezin da tratatu umore kutsurik gabe praktika beltz hori izugarria baita gaur bertan, eta Arregi, Zabalza edo Almeriaren izuak antzerkitik eta haren bidetik kanpo geratu daitezela. Gizarte-jolasak, kuarteletan eta polizia-etxeetan zakurren aisialdirako. Zakurra esaten baitzaio iluntasunean biktimari jipoitzen duenari.)

(Morroiak joko horien irakasle gisa jokatzen du orain, eta besteek, berriz, haiek erakusteko monitore gisa.).

Morroia.— Begiraleak, mesedez. Lehenengo ariketaren izenburua «Gurpila» da, eta berotzen hasteko balio du. (Begiraleak biktimaren inguruan jartzen dira eta txandaka kolpatzen dute, biktima lurrera erori arte. Orduan denak beren postuetara itzultzen dira.) Bigarren ariketa «Txirringa» da, «Ahatea» ere esaten zaiona.

(Monitore batek eskumuturrak lotzen dizkio beste bati belaunaren atzetik, beste bati hirugarren batek ipurdian ostikoak ematen dizkio, eta «Txirringa» horretan ibiltzera behartzen du biktima erori arte. Gero askatu egingo dute eta bakoitza bere tokira itzuli egingo da.)

Egin dezagun orain «Zaldiko-maldikoa», mesedez.

(Biktima aulki birakari batean lotzen dute, eta buelta zorabiagarriak ematen dizkiote, konortea galdu arte. Orduan, askatu eta lurrera botatzen dute. Suspertzeko ura botatzen diote. Biktima jaiki eta bere postuetara itzuliko dira.)

Orain, «Zintzilikarioa» erakutsiko dugu, dibertigarrienetako bat, nahiz eta orain gutxi erabiltzen dela dirudien.

(Biktima oinetatik lotu eta lurretik altxatzen dute sokatik gorantz tiratuz paretan itsatsitako edo sabaitik zintzilik dagoen polea batetik. Ondoren, soka hormako edo zoruko burdin batera lotzen dute eta biktima oinetatik zintzilik uzten dute. Orduan, sabelean jotzen dute, eta, gizona bada, barrabiletan. Biktimaren garrasiak entzungo dira orain Singapurerraino. Gero, berehala, koadroa desegin eta beren postuetara itzuliko dira. Ondoren, morroiak honela dio:)



—«Kirofanoa» (eta eszenan egiten da).

—«Bainuontzia» (eta egin egiten da).

—«Elektrizitatea» (eta egiten da; hori guztia oihuz, garrasi luzez eta perkusio handiz, eta, ahal dela, txalaparta, urruneko herri bati laguntza-mezu bat jakinaraziko balitzaio bezala. Azkenean, morroiak perkusioa keinu batekin eteten du eta monitoreei eskatzen die:)

—Orain, jolas psikologikoaren lagin bat esaldi eta irain komenigarrienen hiztegi txiki bat.

(Monitoreek biktima, odoleztatuta, aulki batean ezartzen dute eta esaldi batzuk esaten dizkiote:)

1. Marikoia.

2. Larrua joko dugu zure amareki.

3. Viva España esan, putasemea.

4. Esan: «Iñaki Letamendi etarra zikina aurkezten da ».

5. Entzuten garrasi horiek? Ondoan, zure neska-laguna bortxatzen ari dira.

(Beste aulki batean, emakume baten biktima bat ere odoleztatu da. Horretarako esaldiak honako hauek izan daitezke, baina taldeak beste testigantza asko har ditzake.)

1. Zikin urdea zara. Ez duzu ikusten pixa egin duzula gainean?

2. Hilekoarekin zaude, urdanga?

3. Makila hau sartuko dizugu aluatik.

4. Aita atxilotzera joan gara eta beldurrez hil da marikoia.

5. Azken finean, maja zara eta guretzat lan egingo duzu. Tira,kendu mukiak eta neska zentzuzkoa izan zaitez.

(Isiltasun handia dago. Biktima mugiezinak dituzten bi aulkien gainean iluna egiten da. Esan beharrik ere ez dago gizonen edo emakumeen banaketan parte hartzea taldearen aukeren arabera izango dela eta narratzailea gizon edo emakumea izan daitekeela, adibidez. Eta abar.)

#### 4. BEHEAN SINATZEN DUTENAK

KONTALARIA.— Torturari batzuek«odoluste ustela» esaten diote.

baina sistema beltz baten zutoina da, eta intelektualek horren aurka idatzi arinak egin ohi dituzte.

Behean sinatzen dugunok —zioten aho txikiz— negar eta garrasi batzuk entzun dituztela uste dugu, Euskal Herrian, Asturiasen, Madrilen edota Valentzian, eta horrek gure pazientzia santua agortzen du. Begirunez eskatzen diogu, Fraga ministro jaunari, arazo honi buruz zerbait egin dezan.

Horrelako idatziak erabili ziren, besteak beste, José Bergamín erbesteratzeko.

Egun batean, ez dakit 70eko hamarkadan, kontua ez baitut eramaten, tortura haien kontra manifestu ugariak atera ziren ildo beretik.

## 5. KOMISARIO BATI TIRO EGITEA

Mugimendu mantsoekin, Manzanas komisarioaren heriotza antzezten da. Narratzaileak honela dio:

KONTALARIA.—Irunen gertatutako indarkeria-ekintzak asko eman zuen pentsatzeko: baietz, ezetz, bai baina... Orduan, inbutuaren legeari buruzko poema latza entzun nuen.

(Hurrengo poemarako musika egitea edo bilatzea iradokitzen da, eta kantatuko du, gitarrarekin edo beste edozein akonpainamendurekin, morroiarekin.)

ABESTIA.— Nire kontzientziaren aurka doa inbutuaren legea:

Hiltzen banaute, ordena da.

Nire burua defendatzea, indarkeria.

Nire kontzientziaren aurka doa inbutuaren legea:

Ordenuaren zaindarien makilakadak ematen dizkirate.

Indarkeria da, berriz, nire aldeko defentsa.

Gorengo jaunek uste dutenez, ez daukat zeri heldu:

Ni hiltzen banaute bakea da eta gerra da ni defendatzea.

Indarkeriak indarkeria sortzen du, esaten dute goibel.

Negarrak entzuten dituzue.

Ez al ziren gure oihuak aditu?

Bizitza alaia heriotza tristea zuen ezagun.

Horrela ikasiko dute besteek.

Tormentuan biziko dira tormentuaz bizitako piztiak.

Horrela ikasiko dute besteek.

diote tortura darabiltzaten piztiak.

Nire kontzientziaren aurka doa inbutuaren legea

Hiltzen bagaituzte, ordena da.

Nire burua defendatzea, indarkeria.

## 6. TORTURAREN DEFINIZIOA

KONTALARIA.— Gustatu zaizue funtzioa? Halere, bukatu baino lehen geratzen zaigun denbora NBERi buruz hitz eginez aprobetxatuko dugu; izan ere, 75ean esaldi seguru baten bidez definitu zuen tortura. (Morroiak definizio hori irakurtzen du, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1975eko abenduaren 9an formulatutakoa.)

Morroia.— Torturatzat hartuko da funtzionario publiko batek edo beste pertsona batek, bere instantzian, nahita, beste pertsona batzuei jasanarazi dizkien zigor edo sufrimendu larriak, fisikoak nahiz mentalak, ekintza horren bidez informazioa edo aitortpena lortzeko asmoz. Pertsona bati egindakoagatik edo egin ote duenagatik zigortzea, edota, halaber, helburu beragatik pertsonak izutzea.

KONTALARIA.— 75. urtean. Tokion ospatutako Sendagileen Batzarrean, Japoniako hiriburuan, tortura definitu zen, jende askok ez jakin arren eta gutxik gogoratzen dituzten hitzez.

Morroia (irakurtzen du).— Tortura da pertsona batek edo gehiagok, nahita, sistematikoki eta begirunerik gabe, sufrimendu fisiko edo mentalez eragitea beren kabuz edo edozein botere-motaren aginduei jarraituz, beste pertsona bati informazioa atera araztera, aitortzeko bideratzea edo beste arazoiren batengatik behartzea.

(Testua utzi eta jendearentzat da.)

Definizioa nahiko eskasa eta erabat eztabaidagarria. Hitz egingo al dugu horretaz antzezpen hau amaitzean? Adibidez, gogoratu daiteke Foucaultek torturari buruz zioena, ikerketa-metodo bat baino gehiago, epaileak akaso emango ez duen zigorraren aurrerakina dela, alegia. Susmagarria izate hutsak, Foucaulten iritziz, zigor bat merezi izatea ekar dezake, «itaundutako soina, zigorraren eta egiaren estortsioaren aplikazio puntua da». Baina, gainera, guretzat, esan dugun bezala, sistemaren zutabe bat da! Zutoin beltza!

(Argia zutabearen gainean eta txalaparta erritmo bizian, ilun osoa, luzea, egiten den bitartean.)

## 7. ATE BATZUEN ATZETIK

(Ilunak gutxi irauten du argia itzultzen delako, orain hainbat estilotako ateen gainean, foroaren gainean proiektatuta —Antiguako kuartela, Puerta del Sol, Vía Layetana...—, eta narratzaileak, berriz, aktoreek ateetan finkatzen ez diren eta eguneroko ekintzak, edozein egunetan gertatzen direnak, egiten dituzten mugimenduak egiten dituzte.)

KONTALARIA.—Ate horietako edozeinen atzean infernua egon daiteke.

Morroia.—Itxura inuzenteko ate batzuen atzean tortura-kabineteak daude.

Bestea.—Jendea aurretik pasatzen da ate horien beste aldean gertatzen dena imajinatu gabe.

Beste bat.—Mundu honetako beste ate batzuk bezalakoak dirudite; beste aldean, dama batek poema-liburu bat irakur dezake, gazte batek bizitza berri batean amets egin eta ispiluaren aurrean orrazten den bitartean.

Beste edo Beste bat.—Ate horietan ez dago ezer hondaturik. Bertan ez da irakurtzen: PER ME SI VA NELLA CITA DOLENTE.

KONTALARIA.— Edo, ITXAROPEN ORO UTZI SARTZEN ZARETENOK.

Morroia.—Baina denek dakite infernua beste aldean dagoela.

Beste.—Zutoin beltza.

Beste bat.—Bota ate horiek.

Beste bat.—Bota zutoina.

(Txalaparta erritmo bizian aktoreak zarataz gainbehera etorriko den zutoina eraistera doaz.)

AMAIERAKO TELOIA

# Joseba Arregiri: Elegia eta etorkizuna

Alfonso Sastre

Ate batzuen atzean infernuak bizi dira. Nork ez daki hori? Zoratuta gaude, akaso?

Ate batzuen atzean, ahots lizun eta ilunez, puzkerraz kolpeez eta guzti, ikaragarritzko algarez, Herioak hartzen gaituela badakigu.

Askotan sartu izaten da infernuan.

Batzuk ez dira handik atera. Joseba Arregi, zu.

Urte asko igaroko dira, baina ezinezko hori badago: ezin da utzi, amets egin behar da: existitzen al da hori?

Ate batzuek, irekitzean, bulego aspergarrienek dirudite, eta tristeak, mekanografo eta amets hilkorren tragedia arinak dituzte; baina hormaren hari mehean, norbaitek auhena bota du, eta, orain, bere larritasuna adierazi nahi du, ez baitu inork entzun behar pareten artean eta keinu zoologikoen eta haien Espainiaren aldeko orroen artean.

Mundua amaitu da? Non nago ni ?, eta nire anaiak?

Edo non zaudete zuek, hain barruan eta hain urrun? Zizurkilgo plaza badago oraindik? Adiskideen arteko poteoa?

Euskadiren ametsak, besarkada, bizitza?

Ez zaitut imajinatu nahi, Joseba; utzi lo egiten pixka bat, etzanda. Nekatuta nago gaur, eta zu hilda zaude.

Zu hil zara gaur, eta ni oso nekatuta nago.

Zu oso nekatuta zaude eta ni hilda nago?

Nire poetei eskua heltzen diet zuri eskua hartzeko, nire tristuraren esku ez geratzeko

Eskua kolera da. A, zuk esan zenuen Vallejok, Peruko astoaz zenion moduan:

Ez izan gaiztoa hiltzean, mantsotu!

Mantsotu hiltzean, eta ez zara hilko!

Joseba, orain, zer nahi duzu esatea? Oso gozoa da goiza gaur.

Atzo, ikusten ez dituzun lainoak izan genituen, eta zirimiria fereka izan zen.

Bihar zure bila joango naiz, ados? Inoiz ez zintudan ezagutu, baina orain zure itzala oso gertukoa sentitzen dut, eta berak ibiltzera animatzen nau, imajinatzen duzu zer...?

Beraz, ez pentsa gu uztea: ez, ez, ez joan inoiz, begira, eta ez haserretu, ikusten zaitut, orain hainbeste hitz egiten baitut zutaz:

denbora baterako baino ez da, eta ezin dut gaueko iluntasun hura ahaztu (ze gauzak esaten ditudan...) irratiz entzun nuen zure heriotza, eta pentsatu gabe esan nuen:

madarikatuak izan zaitezte!, eta gauza bortitzagoak!

Bestela, zutaz kantatu ondoren, hobeto nago,

eta zuk jaikitzen animatu nauzu,

eta zutik nago, ikusten duzu, eta bidean nago

eta lore gorriak hilobira eramango ditut

baina ez loreak heriotzarako, ez, baizik eta etorkizuneko karmesi edo eskarlata bat loratzeko lurrikararako, aski da elegiaz.

Goiza gozo dago Txingudiko badian!

Laster iritsiko da udaberria, beti bezala!

Hondarribian, 1985ko otsailaren 9an